



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## UDALAREN OSOKO BILKURA

2005eko uztailaren 28ko ohiko bilera

### BERTARATU DIRENAK:

#### ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

#### ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.  
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.  
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.  
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.  
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.  
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.  
PSE-EE-PSOE.- Mercedes ANGULO ORDOZGOITI and.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.  
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.  
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.  
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

#### FUSKARAITZULTZAILEA

IDOIA NOBLE and.

#### IDAZKARIA

M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARAGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta bosteko uztailaren hogeita zortziko arratsaldeko zortziak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## I.- ERABAKITZEKOAK

**1.- 2005-06-22ko OHIKO BILERAREN AKTA ONESTEA:** Izenburuan aipatutako bilkuren aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri dira.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, bi mila eta bosteko ekainaren hogeita bian egindako ohiko bileraren akta onetsi du.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

**2.- LEIOAKO UDALAK ETA HAPOko 34. SEKTOREAREN (UBEDENE) HIRIGINTZAKO GARAPENA EGITEKO INTERESA DUTEN SUSTATZAILEEK SINATU BEHARREKO HITZARMENA, BERRIRO ZATITZEKO IRIZPIDEAK AURRERATZEN DITUENA.** Tokiko

Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 19an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 470/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 13an hartu zuen 95 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek HAPOko 34. Sektorerearen (Ubedene) hirigintzako garapena egiteko interesa duten sustatzaileekin egindako hainbat kudeaketaren berri eman dute, gune horren hirigintzako kudeaketa gauzatu ahal izateko.

Lehenengo eta behin aipatu behar da ekonomikoki oso doitu dagoen sustapena dela honakoa, etxebizitzaren % 65 BOE etxebizitzetarako gorde behar baitira, lurzuru urbanizagarria izanik, eta eraikigarritasun koefizientea arrazoiz baxua dela ( $0,3 \text{ m}^2/\text{m}^2$ ). Hain zuzen ere, Plan Partzialak, behin-behineko onesteko testuan, honako banaketa hau ezarri zuen aprobetxamendurako:

| <b>Etxebizitzaren tipologia</b> | <b>Kopurua</b> |
|---------------------------------|----------------|
| Etxebizitza askeak              | 68             |
| BOE etxebizitzak                | 126            |
| <b>GUZTIRA</b>                  | <b>194</b>     |

Sektorean lur-zatiak dituzten jabeek azaldu dute berriro zatitzeko etorkizuneko proiektuan honela gauzatu nahi dituztela euren eraikuntza-eskubideak: BOE etxebizitzak eskuratzea titularrentzat eta zuzeneko ondorengoentzat, Eusko Jaurlearitzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ezarritako betekizunak betetzen badituzte, logikoa den bezala. Beste alde batetik, finantza-doikuntza dela eta, gomendagarria da BOE etxebizitzak kooperatiba erregimenean sustatzea. Udalak ez dauka inolako eragozpenik BOE etxebizitzak kooperatiba erregimenean sustatzen laguntzeko baina, betiere, bertan parte hartu ahal izateko honako betekizun hau ezartzen bada: azken hamar urteetan gutxienez 5 urtez egotea erroldatuta Leioako udal mugartean, eraketa prozeduraren iragarkian azaltzen den egunetik atzerantz zenbatzen hasita. Logikoki, kooperatiba eratzeko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko ekainaren 30eko aginduan ezarritako prozedurari jarraituko zaio, horrek arautzen baitu aipatutako gaia. Hitzarmena gauzatuko duten sektoreko jabe txikiek eta euren zuzeneko ondorengoek, bazkide-sustatzaile tasuna lortu ahal izango dute, gehienez BOE etxebizitzaren % 10 gorde ahal izateko (13), aurretiaz aipatutako Aginduaren 3.6. artikuluan agindutakoaren arabera. Era berean, Leioako udalak gehienez 10 etxebizitza gorde ahal izango ditu, berriro ostatu emateko espedientei erantzuteko, Udalek parte hartzen duten BOE etxebizitzaren sustapenak arautzen dituen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko abuztuaren 21eko 3.5 artikuluan azaldutakoaren arabera.

Hori dela eta, Leioako Udalak gauzatu egingo du bere eskubideen ondorioz lor dezakeen % 10eko lagapena, prezio askeko etxebizitzak eraikitzeke aukerari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

**Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

- Jakinaren gainean eta ados geratu da Leioako Udalak eta HAPOko 34. Sektorearen (Ubedene) hirigintzako garapena egiteko interesa duten sustatzaileek sinatu beharreko hitzarmenari dagokionez, berriro zatitzeko irizpideak aurreratzen dituen.
- Gaia udalaren osoko bilkurari bihurtuko zaio, eztabaidatu eta onesteko.
- HAPOko 34. sektorearen (Ubedene) Plan Partziala behin-behinekoz onetsi ahal izateko, hitzarmen hau gauzatu beharko dela ezarriko da.

Hitzarmena gauzatutakoan, haren kopia bat bidaliko zaio Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, jakin dezaten.

## **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

## **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpena berrestea eta, ondorioz, Leioako Udalak eta HAPOko 34. Sektorearen (Ubedene) hirigintzako garapena egiteko interesa duten sustatzaileek sinatu beharreko hitzarmena (berriro zatitzeko irizpideak aurreratzen dituen) onestea erabaki du. Horrela bada, alkatea ahaldunduko da aipatutako agiria gauzatu eta onespen honetatik eratorritako gainerako jarduera guztiak burutzeko.

**3.- HAPOko 34. SEKTOREAREN (UBEDENE) PLAN PARTZIALA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 19an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 471/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 13an hartu zuen 96 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek honako aurrekari hauen berri eman dute:

- **2004ko maiatzaren 11n:** Tokiko Gobernu Batzarrak, 364. ebazpenaren bitartez, hasieran onetsi zuen Ubedene Sektorearen Plan Partziala, ARK Arquitectura y Urbanismo, S.L. merkataritza-etxeak idatzita.
- **2005eko urtarrilaren 18an:** Tokiko Gobernu Batzarrak, 3. ebazpenaren bitartez, jendaurrean azaldu bitartean aurkeztutako alegazioak aztertu zituen. Onartu egin zuen Udalaren Bulego Teknikoaren proposamena, alegazioak aurkezteko beste epe bat irekitzeko, proposatutako aldaketak kontuan hartuta.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Jendaurrean azaltzeko epe berri honetan, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak beste alegazio bat aurkeztu zuen. 2005-05-10ean sartu zen Leioako Udalaren erregistro nagusian eta 1.741 zenbakia du. Honakoa dio:

- Hirigintzako Kudeaketa Araudiaren 47.3 artikulua araberak, uko egin zaio gaur egungo bideko lur-zatiak balbula-aretorako erabiltzeari, eta Plan Partzialean aurreikusitako bide berriarekin ordeztu beharko da; izan ere, hori ez da herri erabilerako ondasuntzat hartzen, baizik eta Ur Partzuergoaren zerbitzu publikotzat.
- Bidea eraikitzeko tramitatu den espedientean, antza denez Ur Partzuergoak desjabetu zituen baina inoiz hari atxikita egon ez diren lur-zati biren titulartasuna aintzatestea eskatu da. Ur Partzuergoak adierazitako titulua, baina, ez zen Jabetza Erregistroan sartu.

Plan Partziala idatzi duen taldeak txostena bidali zuen 2005-07-11n eta, horren bitartez, Ur Partzuergoaren asmoak gaitziritzea proposatu zuen. Izan ere, alegazioak azaldutako bidea eraiki zenetik bertatik erabili izan da jendeari irekitako bide gisa, inolako murrizketarik gabe. Egia esan, Plan Partzialean ezarritako bideak gaur egungo bidearen ezaugarriak ordeztu eta hobetu egiten ditu, bai hedaduran bai funtzionalitatean. Hori guztia dela eta, Hirigintzako Kudeaketa Araudiaren 47.3. artikuluan xedatutakoa aplikatuz egin da. Antza denez desjabetze-espedientearen atal izan ziren lur-zatien titulartasuna aintzatesteari dagokionez, bere garaian egingo den berdinbanaketa espedientean ebatzi beharko da gai hori. 2005eko uztailaren 12an, Udalaren Bulego Teknikoak txostena eman zuen eta, bertan, Plan Partziala idatzi duten taldeak adierazitako irizpidea berretsi zuen.

**Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Jakinarazi egingo da arestian aipatu den Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aurkeztutako alegazioa gaitziritzi egingo dela.
- Guztiz berretsiko da Tokiko Gobernu Batzordeak 2005-01-18an hartu zuen 3. ebazpenaren edukia.
- Espediente biak (2005-01-18ko 3. ebazpena eta ondoren berretsiko den irizpen hau) bidaliko zaizkio Udalaren osoko bilkurari, HAPOko 34. Sektoreren (Ubedene) Plan Partziala behin-behinekoz onesteko.
- Plan Partziala onetsi ahal izateko, aprobeitxamendua banatzeko irizpideak aurreratzen dituen hirigintzako hitzarmena gauzatu beharko da; gai hori aurreko irizpenean aztertu da.
- Plan Partziala behin-behinekoz onetsitakoan, berau idatzi duen taldeak testu bategina idatzi beharko du. Bertan, gai honi buruzko ebazpenetan azaldutakoa agertu beharko da eta, era berean, kontuan izan beharko du 2005eko apirilaren 29ko BAOen Leioako Plan Orokorra aldatzea arautzeko testua argitaratu dela. Bertan erabilerari buruzko



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

balio-koefiziente berriak aplikatzeko modua azaldu zen, bereziki etxebizitza askea/BOE etxebizitza neurritasunari dagokionez. Izan ere, 0,2ko koefizientea ezarri zen BOE etxebizitzarako, etxebizitza askearen erabilerari dagokionez, eta laurteko 0,183 m<sup>2</sup>/m<sup>2</sup>ko aprobetxamendua eratorri da prezio askeko etxebizitzaren erabilerari dagokion balioa oinarri hartuta.

- Aipatutako testuategina Bizkaiko Foru Aldundiari bidaliko zaio, behin betiko onets dadin.

### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, aho batez, bertan azaldu moduan berretsi du Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpena eta, ondorioz, behin-behineko onetsiko da Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 3. Sektorearen (Ubedene) Plan Partziala.

**4.- HAPOko ZATI BATEN ALDAKETA HASIERAN ONESTEA. ALDAKETA HORREN BITEZ ARAUTZEN DA DAUDEN ERAIKINEN FATXADETAN IGOGAILUAK INSTALATZEKO AUKERA** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 19an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 472/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 13an hartu zuen 97 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek HAPO aldatzeko proposamena irakurri dute, eraikinetan igogailuak ezartzeko aukerari buruz.

### **“HAPOren ALDAKETA, ERAIKINETAN IGOGAILUAK EZARTZEKO AUKERA ARAUTZEARI BURUZ**

*Leioako udal mugartean dauden hainbat egoitza-eraikinetan ez dago igogailurik. Hori dela eta, maiz jasotzen dira Irigarritasuna Sustatzeko 1997-12-4ko 20/1997 Legea eta berau garatzen duen 2000-04-11ko 68/2000 Dekretua betetzeko asmoz, elementu hori instalatu nahi duten jabeen erkidegoen galdera edo eskabideak.*

*Elementu horiek fatxadako lerrotik kanpo daudenean, eraikinen estetika aldatu behar da eta, gainera, eraikinaren mugakide diren kanpoko guneen erabilera alda lezakete (espaloiak, aparkalekuak, etab.).*

*Aldaketa honen bitartez, irtenbide orekatua eta igogailuak jartzean egon litezkeen interes guztiak errespetatzen dituen proposatu da. Alde batetik horiek ezartzearen alde egingo da, aprobetxamendurik kontsumitzen ez delako baina, beste alde batetik, horri buruzko Xehekapen Azterlana idatzi eta onetsi beharko da. Horrela, entzunaldia eta jendaurrean azaltzeko tramiteak irekitzeko beharra beteko da, interesdunek egoki irizten dutena azaldu ahal izan dezaten.*



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

**Proposatutako aldaketa arautzailearen edukia:**

*Beste atal bat erantsi zaio HAPOko ordenantzen 1.2.2 artikulua 2. zenbakari; jarraian azaldu bezala geratuko da idatzita:*

**1.2.2. artikulua, Aldaketak:**

.....

2. Ondokoak ez dira aldaketatzat hartuko:

.....

f) Lehendik dauden eraikinetan igogailuak ezartzetik fatxadan eragindako aldaketak. Honelako kasuetan, Xehekapen Azterlanaren bitartez zehaztu beharko da aldaketa hori eta, Udalak diseinuak baztertzeko aukera izango du, kalitate nahikorik ez dutelako instalatzeko dagoen eraikina eskasago bihurtzen badute.

*Gai hau udal ordenantza batek garatu zein ez, gutxieneko honako irizpide hauek ezarri dira:*

- Xehekapen Azterlanak honako agiriak izango ditu:

\* Eraikinaren gaur egungo egoera eta zaharberritu ondoren egoera, goitiko bista, ebakidura eta aurretiko bistatan azalduta.

\* Proiektuak eragingo duen lurzoruaren titulartasuna.

\* Memoria, higiezin mugakideetan izango duen eragina azalduz.

- Igogailua eraikinaren kanpoko fatxadari eragingo ez dioten lekuetan instalatzen saiatuko da. Instalazioak kanpoko fatxadan jartzean onartu ahal izateko ezinbestekoa izango da beste lekuren batean instalatzea eragozten duten zailtasun tekniko larriak egotea.

- Igogailua instalatzean herri titulartasuneko lurzoruari eragitekotan, Toki Erakundeetako Ondasunen Araudiko 8.4.a), 7.2 eta 115.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Xehekapen Azterlana behin betiko onesteak baimena emango du lur-zati horiek Jabeen Erkidegoari eskualdatzeko.

**7.1.12 artikulua. Hirigintzako aprobetxamendua zenbatzeko modua.**

*Bigarren paragrafoa erantsi zaio artikulua honen 1. atalari; honakoa dio:*

*Aurretik dauden eraikinetan igogailua instalazio bat dela ulertuko da; horrenbestez ez du aprobetxamendurik kontsumituko, eta berau agortu duten eraikinetan instalatu ahal izango da.”*

**Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak gitea komeni dela iritzi du:

- Udalaren osoko bilkurak hasieran onets dezala plangintzaren aldaketa, espediente honen xede dena.

- Udalaren osoko bilkurak hasieran onetsitakoan, hilabeteko epean azalduko da agiria jendaurrean, iragarkiak argitaratuz BAOn eta egunkarietan, gai honetan indarrean dauden legeetan zehaztutakoa betetzearren (Lurraren Araudiari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen 41. artikulua, 1976ko apirilaren 9ko testu bat egina).



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

- Aurreko paragrafoan adierazitako epean alegaziorik aurkezten ez bada, edo Udal Zerbitzu Teknikoek aldaketaren bat proposatzeko txostenik egiten ez badute, espedientea behin-behinean onetsi dela ulertuko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintza Sailera bidaltzeko, hark behin betiko onetsi dezan.

### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa, dauden eraikinen fatxadetan igogailuak instalatzeko aukerari buruzkoa, hasieran **oneste** erabaki du, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

**5.- MENDIBILE OSTEIKOA JAUREGIA IZENEKO HIGIEZINA MENDIBILE JAUREGIA ELKARTEARI DOAN LAGATZEA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 19an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 488/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko uztailaren 13an hartu zuen 113. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Mendibile Osteikoa Jauregia MENDIBILE JAUREGIA Elkarteari doan lagatzeko hitzarmenaren ale bat eman zaie Batzordeko kideei; hori, Behargintzako zerbitzuek prestatu dute.

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, Batzorde honetako buruak, hitzarmenaren edukia azaldu du, zehatz-mehatz.

**Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** gaia bozkatu eta honakoa izan da emaitza: aldeko botoak: EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jauna, Batzorde honetako burua, EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jauna, EAJ-PNVko Ainara Urbietta Bergara andrea, EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jauna eta EAKo Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jauna; abstentzioak: PPko Iñaki Gamero Delgado jauna, PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna eta PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jauna. Horrenbestez aldeko irizpena eman dio honakoari:

**LEHENENGOA.-** Hasieran onetsiko da Mendibile Jauregia Elkarteari MENDIBILE OSTEIKOA JAUREGIA izeneko eraikinaren gelak eta gehigarriak -egoitza ofizial gisa erabiltzeko Bizkaiko Txakolina Jatorri Izendapenaren Kontseilu Arautzaileari doan lagatakoak (lehenengo solairuan administrazio -18,90 m<sup>2</sup>- eta zuzendaritzarako -14,80 m<sup>2</sup>-, eta sotoan biltegirako -25,40 m<sup>2</sup>-) izan ezik- doan lagatzea. Eraikin hori Bilboko 10. Jabetza Erregistroan (finka: 19.716; liburua: 410; liburukia: 1884) eta Ondasunen Udal Inbentarioan (118 zenbakia) inskribatuta dago.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Lagapen hori Testu Bateginaren 79.2 eta Ondasunen Araudiaren 110. artikuluek ezartzen dutenaren arabera egingo da. Lagapenaren helburua den eraikinaren identifikazio-planoa erantsi da 1. eranskin gisa, Bizkaiko Txakolina Jatorri Izendapenaren Kontseilu Arautzaileari lagatako gelak salbuetsita.

Erabaki honek Jabetza Erregistroaren Ziurtagiria behar du. Ziurtagiri horren bidez, lagatzen den ondasunari dagokionez, amaierako ematea eta inskribatzea, edo obra berriko amaiera ziurtatu behar da. Horrez gain, kontu-hartzaileak ziurtagiria egin beharko du, likidatu gabeko zorrik ez dagoela adierazteko.

Helburuak 6 hileko epean, eman denetik aurrera, bete beharko dira, erabilerari hurrengo 30 urteetan eutsi beharko zaiola.

Lagapen erabakian adierazitako epean helbururako erabili ezean, edo beranduago helburu horri uztekotan, lagapena suntsituztat joko da, eta ondasun horiek Toki Korporazioari itzuliko zaizkio. Horrek lagatako ondasunengatik izan dituen kalteen balioa erakunde onuradunetik jasotzeko eskubidea izango du, adituak prezioa finkatu ondoren.

Lokala MENDIBILE JAUREGIA Elkartearen jardueretarako erabiliko da. Elkarteak 2004ko urriaren 21ean onartutako Estatutuetan agertzen dira jarduerok, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Elkartearen Erregistroaren 1. atalean inskribatuta dago AS7B/11860/2005 zenbakiarekin, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Azterlan eta Lege Araubide zuzendariaren ebazpenaren arabera.

Aipatutako Estatutuetan adierazten diren jardueretako bat ez dena garatzeko, aurretik Leioako Udalaren baimena eskatuko da.

Elkartearen jardueren programazioa Leioako Udalak berez edo tokiko agente edo taldeen bidez antolatzen dituen jarduerekin koordinatuko da. Lehentasuna izango du hirugarrenen aurrean, eta horrek ez du inola ere ekarriko kalterik Elkartearen funtzionamendu arruntean.

Aurreko baldintzan jasotzen den adierazpen orokorraren kalterik gabe, lokala osorik erabili behar den neurrian eta Elkartearen helburuak lortzeko asmoz, Leioako Udalak BERARIAZKO BAIMENA EMATEN DIO MENDIBILE JAUREGIA Elkarteari, kafetegia-jatetxea jarduera ustiatzeko, ondore horretarako prestatutako lekuan, betiere jarduera horretatik lortutako diru-sarrerak Elkartearen helburu eta jarduerak betetzeko eta batzuetan lokala zaindu, mantendu eta konpontzeko (baita ura, argia, eta lokala erabiltzearen ondorioz sortzen diren beste kontsumo batzuk ordaintzeko ere) erabiltzen badira. Baimen horrek hirugarrenei esleitzeko aukera barne hartzen du. Hala ere, horretarako publizitate, gardentasun, aukera berdintasun eta objektibotasun printzipioak errespetatzen dituen prozedura bideratu beharko da, aurretik ezartzen diren irizpideen arabera.

Baldintza horretan jasotakoaren mesedetan, Elkarteak jatetxea ustiatzeko jardueratik ondorioztatutako diru-sarrera eta gastuen egoerari buruzko memoria aurkeztuko dio urtero Leioako Udalari.

Mendibile Jauregia Elkarteak lagatako ondasunak adierazitako epean hitzarmen honen LEHENENGO, BOSGARREN ETA SEIGARREN baldintzetan jasotako helburuetarako erabili ezean, edo beranduago –hurrengo 30 urteen barnean- helburu horri uztekotan, lagapena suntsituztat joko da, eta ondasun horiek Toki Korporazioari itzuliko zaizkio, ondasun eta akzesio guztiekin (Ondasunen Araudiaren 111.2 eta 111.3 artikuluek).



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Era berean, Estatutuen 57. artikulua xedatzen duen bezala, Elkarte desegiten bada: "Elkarte desegiten bada, desegite hori erabakitzen duen Biltzar Nagusiak Batzorde Likidatzailea izendatuko du. Zuzendaritza Batzak osatuko duen batzorde hori dauden fondoez arduratuko da.

Bazkideekin eta gainontzekoekin betebeharrak sozialak bete ostean ondare sozialik soberan egongo balitz, ondare hori Leioako Udalari emango zaio, eta horrek irabazteko asmorik gabeko jardueretan erabiliko du".

**BIGARRENA.-** Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost (15) eguneko epean, horri buruzko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Leioako Udaleko iragarki-oholean argitaratuz. Horrela, alegazioak aurkeztu ahal izango dira eta, horrelakorik egotekotan, udalaren osoko bilkurak ebatzi beharko ditu. Erabaki hau behin betikotzat joko da adierazitako epean alegaziorik aurkeztu ezean, eta espedientean ondokoak sartu ondoren: Jabetza Erregistroaren Ziurtagiria, horren bidez, lagatzen den ondasunari dagokionez, amaierako ematea eta inskribatzea, edo obra berriko amaiera ziurtatu behar dela; eta horrez gain, kontu-hartzaileak egindako ziurtagiria, likidatu gabeko zorrik ez dagoela adierazteko.

**HIRUGARRENA.-** Doan lagatzeko behin betiko erabakia jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza eta Udal Harremanak Sailaren Lege Aholkularitza eta Toki Administrazioako Zerbitzuari eta, gainera, espedientea bidaliko zaio. Izan ere, Ondasunen Araudiaren 109.2 artikulua, Euskal Herrirako Autonomia Estatuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 37. artikulua eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikulua xedatutakoaren arabera, Lurralde Historikoek eskumen eskusiboa dute probintzia eta udalerrietako ondasunen araubideari dagokionez, eta euren berezko araubideen arabera gauzatuko dute, ondasunok herri jabarikoak, ondarekoak, norberek zein komunalak izan.

**LAUGARRENA.-** Eneko Arruebarrena Elizondo lehenengo alkateordea ahaldunduko da, Leioako udalaren izen eta ordezkartzan, lagatzeko hitzarmena sinatzeko, berau behin betiko onetsitakoan; izan ere, Leioako Udaleko alkatea, era berean, Mendibile Jauregia Elkarteko burua ere bada. Doan lagatzeko hitzarmenaren ondoreak, hitzarmena sinatzen den egunetik aurrera sortuko dira.

## **EBAZPENA**

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK** eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak** honakoa adierazi du:

5. eta 6. puntuak batera aztertzea proposatu du, euren artean zerikusia daukate eta, nahiz eta banan-banan bozkatu.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Labur-labur esaten saiatuko dela adierazi du. Izan ere, bere ustez, oraingo lagapenak txarto hasi eta are okerrago amaitzen den istorio baten azken urratsa dira. Hasieran Mendibile Jauregiak gaztetxea izateari uzteaz hitz egin zen; ez litzateke aukerako lekurik izango, baina kultur etxearen osagarria bai, bertan auzoek parte hartuko luketela. Eta amaieran, berriz, elkarte horri laga, eta udalak kudeatzailea izateari utzi dio, nolabait.

Lehen esan bezala, istorioa txarto hasi zen, eta amaieran ez dauka zerikusirik garai hartan aztertzen hasi ziren proiektuekin. Barru-barruan uste du oraindik inork ez dakiela zer egingo den eraikin horrekin. Zati bat superjaketxe bat, luxu handikoa, jartzeko erabiliko da, eta era berean, Kontseilu Arautzailea bertan kokatuko da. Inoiz ez dira ados egon gaia garatzeko moduarekin, beraiek beste aukera batzuk, gaur egun burutu ez direnak, hausnartzen zituzten eta, eta hori dela eta, ez dute eraikin osoa Elkarteari lagatzearen edo zati bat Kontseilu Arautzaileari lagatzearen alde egingo, uste dutelako bertan buru daitezkeen jarduerak udal titulartasuna eta kudeaketa dituen eraikin baten barruan gauzatu behar direla.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak** honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin, gai horren gogoeta hasi zenean, artean inork ez zekiela zer gertatuko zen gainerako udal instalazio eta ekipamenduekin adierazi du. Hori dela eta, uste du Mendibileri buruzko erabakia eta erabilera ondoren hartu diren erabakien multzoaren barnean azertu behar direla, eta bereziki, kultur etxearen eraikuntzaren barnean. Izan ere, ez dira berdinak kultur etxerik ez duen gogoeta, eta kultur etxea duena.

Bigarrenez, adierazi du kontua ez dela Udalak Mendibile kudeatzeari uztea, Elkartea Udalaren barnean baitago, eta horren burua alkatea baita. Horren ondorioz, Udalak ikuskatuko du. Horri dagokionez, irailean Mendibile Jauregia bisitatzeko aukera egongo dela adierazi du, aurretik agindu zuen bezala. Bisita horretan balio anitzeko gelak azalduko dira zehatz-mehatz, horien artean museorako lekua, eta Kontseilu Arautzaileak egoitza ofizial gisa erabiliko dituen bi bulego txiki daudela. Jabetxea Mendibile Jauregitik kanpo dago, eta baliabideak eskainiko ditu, Mendibile osoa aurrera joan dadin.

Amaitzeko, operazio ona dela adierazi du, eta gai hori orain dela sei urte egindako gogoeten eremuan ez ezik, azken urteetan hartu diren udal ekipamenduei buruzko erabakien eremuan ere azertu behar dela azpimarratu du, batez ere Kultur Leioa eraiki eta abiaraztearen inguruan.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Hasieran, ez dute arrazoirik Mendibile Jauregia eraikina Elkarteari zein Kontseilu Arautzaileari lagatzea eragozteko, betiere bi erakundeek eraikina erabiltzen badute txakolinaren eta nekazaritzako elikagaien sektoreei eta udalerriko garapen ekonomiko eta sozialari laguntzeko helburuak behar bezala betetzeko. Jarraian, Elkarteari hitzarmenaren 14. baldintzarekin eta Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen hitzarmenaren 13. baldintzarekin ados ez daudela adierazi du, ezarritako 30 urteko lagapen-aldiari dagokionez. Izan ere, beren ustez, aldi hori luzeegia da, eta hitzarmen horiek aldatzea proposatu dute, 4 urtean behin hitzarmenak berrikusteko aukera sartzeko. Horrela, udalbatza berri bakoitzak eraikina lagatzeko egon diren helburuak betetzen ari diren eta kudeaketa erregularitasun osoz burutzen den egiaztatuko du, eta zuzenbideari jarraiki, lau urteko epetan luzatuko ditu. Halaber, kafetegi-jaketxearen diru-sarreraren onuradunen kontua pixka bat zehaztuago egotea gustatuko litzaike, neurri handiagoan deskribatuz.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak** honakoa adierazi du:

Elkarteak edo Kontseilu Arautzaileak lagapen-hitzarmenetan zehaztutako helburuak bete ezean, Udalak lagapenak suntsituko ditu, hitzarmenen iraunaldia amaitu arte itxaron gabe, eta ondasunak Udalari itzuliko zaizkio. Jarraian, epe luzeagoa ezarri dela adierazi du, lagapena badago, ez direlako berdinak inbertitu eta 4 urteko eperako ordaintzea, eta 30 urteko eperako egitea. Kontu horretan interesgarria da jatetxea kokatzea, museo planteamendua gaituta eta museo proiektua eta elikagaigintza aberastuta. Horregatik, epe luzea ezarri behar da, etekinak handiak izan daitezen eta Mendibile Jauregiaren funtzionamendu onari lagun diezaioten. Beraz, ez du ulertzen zergatik murriztu behar diren lagapen-aldiak, Udalak ikuskatuko baititu nekazaritzako elikagaien sektorerako zein gure udalerraren arlo sozio-ekonomikorako helburuak zorrotz betetzen diren.

Diru-sarreraren erabilerari dagokionez, hitzarmenak kafetegi-jatetxearen alokairuaren emaitza Mendibile Jauregiaren jardueren funtzionamenduari baino ezin zaiola lotu ezartzen duela adierazi du. Burua den aldetik, aldizka egoera horren martxaren berri emateko konpromisoa hartzen du.

**PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak** honakoa adierazi du:

Mendibile Jauregia Elkartearen sorrera aztertu zenean Udalaren osoko bilkuran esan zuenari heltzen diola adierazi du. Era berean, EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiorrutia jaunak esan duena egia dela azaldu du, aspaldian kontu hori aztertu zutenean gauza batzuk aurreikusi baitziren Mendibile Jauregirako, denboraren poderioz beste batzuk bihurtu direnak. Nolanahi ere, bertan kokatuko diren bi erakundeak, bai Elkarteak, bai Txakolinaren Kontseilu Arautzailea, onuragarriak dira herrirako, erabakiak hartzeko gune edo sektore hori garatzeko ideiak emateko leku bihur daiteke eta. Jatetxeari dagokionez, ez zaie txarto iruditzen ostalaritzako eskaintza ona badago, udalerritik kanpoko jendea etorri eta Mendibile Jauregia Elkarteak iraunkor izaten laguntzea. Hori dela eta, ondo iruditzen zaie, eta baiezko botoa emango dute.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak** honakoa adierazi du:

Azken asteetan Kontseilu Arautzailearekin, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailekin, eta EAeko Nekazaritzako Elikagaien sektorearekin Mendibile Jauregian egon dela adierazi du, eta Leioako merkataritzako pertsonak gonbidatu dituzte: Leioako enpresa garrantzitsuenak, Unibertsitatea, sektore turistikoaren langileak.... Bere ustez, Leioak pasealeku publikoak, ekipamenduak eta egoitzak ez ezik, jarduera ekonomikoa eta lana ere behar ditu, eta uste du une honetan abiarazten ari diren beste elementu batzuekin batera, Mendibile oso interesgarria izan daitekeela, Leioako sektore sozio-ekonomikoa, baita turistikoa ere, aktibatzeari begira.

Horri dagokionez, eta argia denez, guztirako konponbide orokorra ez dela adierazi du, baina hala ere, oso tresna interesgarria izan daiteke nekazaritzako elikagaien sektorearen bultzatzeko, eta sektore turistikoaren eta industrialaren barnean erreferentziatzeko lekua izateko. Esate baterako, Dow Chemical, Fae, Vicrila, Unilever, eta autoen kontzesionarioek enpresa edo merkaturatze ekitaldiren bat egin behar badute eta Mendibile erabiltzen badute, planteamendua aberastuko dute, eta gainera, lan egiten jarraitzeko baliabideak emango dituzte. Mota horretako ekimenak ezagutzen dituzten pertsonekin askotan lan egin du, eta uste du elementu garrantzitsua izan daitekeela zirkuitu turistikoan, hori ikustera joan diren pertsonak azaldu baitiote hartutako konponbidea egokia dela eta nahiko ondo funtzionatzen duela.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Amaitzeko, irailean zinegotziekin bilduko dela adierazi du, Mendibile Jauregiari buruzko kontu guztiak zehatz azaltzeko, eta gero jauregia bisitatuko dutela.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Elkartearen ikuspuntutik proiektu hori oso onuragarria dela ulertzen duela adierazi du, baina beharbada, berak ez daukala nahiko pazientzia alkatea izan eta horrela zuzenean kudeaketa osoaren berri izateko. Hori dela eta, osoko bilkuretan ikuskapen edo kontrol jarduerak egitea gustatuko litzaioke. Dena den, udal ordezkariarekin zerikusi txikia duen erakunde hori dago, eta ez zaio gustatzen, eta era berean, ez zaio gustatzen eraikina husteko prozesuaren ondoren, jabetxea (noizbait Txakoli Etxea deitu zena) agertzen zuen maketa aurkeztu zitzairenean, proposatutako balizko erabileretatik azkenean ondorioztatu dena, nabarmen aldatu baita dena. Garai hartan ez zitzairen gustatu nola burutu zen prozesua, eta orain ere ez zaie gustatzen nola burutu den, zeharkako kudeaketaren bidez pribatizatuko da eta.

Jarraian, ideia ahuldu nahi ez duela adierazi du, positibotzat jotzen du eta, nahiz eta beraiek nahi zutena ez den. Horregatik, zeharka kudeatzea gustatzen ez zaiela adierazi zuten, Elkartearen buruak izan edo bertan sartuta egon gabe, ez baitute jakingo zer gertatzen den bertan.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin, udaleko zinegotziak Mendibile Jauregia bisitatzeko azkenak izango omen direla adierazi du, enpresa eta beste kolektibo asko udaleko zinegotzien aurretik bisitatzeko aukera izan omen dute eta. Normala denez, ez datoz bat horrekin.

Bigarrenez, berriro errepikatu nahi du hitzarmenak lau urtean behin berrikustea ezarri beharko luketela. Hala ere, hitzarmenen gaur egungo testua ikusita, Udalaren osoko bilkurak lagapen-hitzarmenak suntsi ditzake edonoz.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak** honakoa adierazi du:

Elkarteak edo Kontseilu Arautzaileak lagapen-hitzarmenetan onartu dituzten eginkizunak bete ezean, Udalak bidezko lagapenak suntsituko dituela adierazi du.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Hitzarmenaren luzapenaren gaineko muga ezarri beharra errepikatu du. Hori dela eta, bere taldea abstenitu egingo da. Era berean, Mendibile Elkartearen Estatutuei buruzko zenbait hobekuntza dituztela adierazi du, informazio batzordearen hurrengo bileran aurkeztuko dituztela.

Amaitzeko, lankidetzak-hitzarmen horiek orain dela urtebete baino gehiago Kultura Batzordean aurkeztutakoak ordeztu dituzten argitzeko eskatu du, horietan lokala lagatzea aurreikusten zela Udalaren eta Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen arteko lankidetzak-hitzarmenari jarraiki.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak** honakoa adierazi du:

Aurreko hitzarmena hitzarmen honen bezpera zela adierazi du. Oraingoa asmoen deklarazioa da, bertan zeri ekin behar zaion zehazten dela eta hartu beharreko konpromiso guztiak gauzatzen direla.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamabost boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariena, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak eta EAKo ordezkariarena; kontrako boto bi ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Era berean, lau abstentzio egon dira, PPko lau zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz**, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpena termino horietan **onestea erabaki du**.

### **6.- MENDIBILE OSTEIKOA JAUREGIA IZENEKO HIGIEZINAREN BAO BATZUK DOAN LAGATZEA BIZKAIKO TXAKOLINA JATORRI IZENDAPENAREN KONTSEILU ARAUTZAILEARI:**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 19an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 489/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko uztailaren 13an hartu zuen 114. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

MENDIBILE OSTEIKOA JAUREGIA izeneko higiezinaren HAINBAT bao Bizkaiko Txakolina Jatorri Izendapenaren Kontseilu Arautzaileari doan lagatzeko hitzarmenaren ale bat eman zaie Batzordeko kideei; hori, Behargintzako zerbitzuek prestatu dute.

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, Batzorde honetako buruak, hitzarmenaren edukia azaldu du, zehatz-mehatz.

**Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** gaia bozkatu eta honakoa izan da emaitza: aldeko botoak: EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jauna, Batzorde honetako burua, EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jauna, EAJ-PNVko Ainara Urbietta Bergara andrea, EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jauna eta EAKo Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jauna; abstentzioak: PPko Iñaki Gamero Delgado jauna, PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna eta PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jauna. Horrenbestez aldeko irizpena eman dio honakoari:

**LEHENENGOA.-** Hasieran onetsiko da Bizkaiko Txakolina Jatorri Izendapenaren Kontseilu Arautzaileari MENDIBILE OSTEIKOA JAUREGIA izeneko eraikinaren gelak eta gehigarriak doan lagatzea, egoitza ofizial gisa erabiltzeko. Eraikin hori Bilboko 10. Jabetza Erregistroan (finka: 19.716; liburua: 410; liburukia; 1884) eta Ondasunen Udal Inbentarioan (118 zenbakia) inskribatuta dago.

Lehenengo solairuan: bi gela, administrazio eta zuzendaritzarako. 18,90 m<sup>2</sup> eta 14,80 m<sup>2</sup> dituzte, hurrenez hurren.

Sotoan: gela bat, 5. biltegitako. 25,40 m<sup>2</sup> ditu.

Lagapen hori Testu Bateginaren 79.2 eta Ondasunen Araudiaren 110. artikuluek ezartzen dutenaren arabera egingo da. Lagapenaren helburua den eraikinaren identifikazio-planoa erantsi da 1. eranskin gisa, Bizkaiko Txakolina Jatorri Izendapenaren Kontseilu Arautzaileari lagatuko gelak salbuetsita.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Helburuak 6 hileko epean, eman denetik aurrera, bete beharko dira, erabilerari hurrengo 30 urteetan eutsi beharko zaiola.

Lagapen erabakian adierazitako epean helbururako erabili ezean, edo beranduago helburu horri uztekotan, lagapena suntsituztat joko da, eta ondasun horiek Toki Korporazioari itzuliko zaizkio. Horrek lagatako ondasunengatik izan dituen kalteen balioa erakunde onuradunetik jasotzeko eskubidea izango du, adituak prezioa finkatu ondoren.

Erabaki honek Jabetza Erregistroaren Ziurtagiria behar du. Ziurtagiri horren bidez, lagatzen den ondasunari dagokionez, amaierako ematea eta inskribatzea, edo obra berriko amaiera ziurtatu behar da. Horrez gain, kontu-hartzaileak ziurtagiria egin beharko du, likidatu gabeko zorrik ez dagoela adierazteko.

**BIGARRENA.-** Espedientea jendurrean azalduko da hamabost (15) eguneko epean, horri buruzko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Leioako Udaleko iragarki-oholean argitaratuz. Horrela, alegazioak aurkeztu ahal izango dira eta, horrelakorik egotekotan, udalaren osoko bilkurak ebatzi beharko ditu. Erabaki hau behin betikotzat joko da adierazitako epean alegaziorik aurkeztu ezean, eta espedientean ondokoak sartu ondoren: Jabetza Erregistroaren Ziurtagiria, horren bidez, lagatzen den ondasunari dagokionez, amaierako ematea eta inskribatzea, edo obra berriko amaiera ziurtatu behar dela; eta horrez gain, kontu-hartzaileak egindako ziurtagiria, likidatu gabeko zorrik ez dagoela adierazteko.

**HIRUGARRENA.-** Doan lagatzeko behin betiko erabakia jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza eta Udal Harremanak Sailaren Lege Aholkularitza eta Toki Administrazioako Zerbitzuari eta, gainera, espedientea bidaliko zaio. Izan ere, Ondasunen Araudiaren 109.2 artikulua, Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 37. artikulua eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikulua xedatutakoaren arabera, Lurralde Historikoek eskumen eskusiboa dute probintzia eta udalerrietako ondasunen araubideari dagokionez, eta euren berezko araubideen arabera gauzatuko dute, ondasunok herri jabarikoak, ondarekoak, norbereak zein komunalak izan.

**LAUGARRENA.-** Alkate jauna ahaldunduko da, Leioako udalaren izen eta ordezkartzan, lagatzeko hitzarmena sinatzeko, berau behin betiko onetsitakoan. Doan lagatzeko hitzarmenaren ondoreak, hitzarmena sinatzen den egunetik aurrera sortuko dira.

## **EBAZPENA**

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK** eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

Jarraian bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamabost boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariena, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak eta EAko ordezkariarena; kontrako boto bi ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Era berean, lau abstentzio egon dira, PPko lau zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz**, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpena termino horietan **onestea erabaki du**.

### **7.- EUDEL ETA NATURCORP REDES S.A.U.ren HARTEAN SINATUTAKO HITZAR MENA ONESTEA, TOKIKO HERRI JABARIAREN APROBETXAMENDU BEREZIA EDO BAKARREKO ERABILERA EGITEAGATIKO TASA UDALEK KUDEATZEKO:**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 12an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 462/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko uztailaren 6an hartu zuen 108. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzordera bertaratu diren kideei, Eudel eta Naturcorp Redes S.A.U.ren artean sinatutako hitzarmena eman zaie, tokiko herri jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa kudeatzeko.

Ondoren, hitzarmena sinatzearen helburua azaldu da.

**Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak, PPko Iñaki Gamero Delgado jaunaren, PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunaren eta PSE-EE-PSOeko Nieves Hurtado Urtiaga andrearen abstentzioak egon direla, egoki iritzi dio honakoari:**

1. Beren-beregi atxikiko zaio EUDEL eta NATURCORP REDES S.A.U.ren artean sinatutako hitzarmenari, tokiko herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo bakarreko erabilera egiteagatiko tasa udalek kudeatzeko.
2. NATURCORP REDES S.A.U.rekin egindako likidazioekin ados egon ezean, Udalak konpromisoa hartuko du ezadostasun horren arrazoia EUDELi jakinarazteko, horri buruzko erabakia hartu ahal izateko.
3. EUDELe konpromisoa hartuko du bost laneguneko epean, ezadostasuna jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Bitartekaritza Mahaiaren deialdia egiteko.
4. Bitartekaritza Mahaiak EUDEL, NATURCORP REDES S.A.U. eta eragindako Udaleko kideek osatuko dute. Horrela bada, hiru hilabeteko epea izango du gatazka ebazteko, EUDELe ezadostasuna jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.
5. Atxikipen honen bitartez eta hitzarmen honen eremuan, Udalak konpromisoa hartuko du, lege edo administrazio ekintzaren bat burutu aurretik, Bitartekaritza Mahaiaren deialdia egiteko sor litekeen edozein gatazka ebazteko. Laugarren atalean ezarritako epea igaro eta gaia ebatzi ez bada, eta arestian aipatutako lege edo administrazio ekintzak hasi badira, udal honekin sinatutako hitzarmena automatikoki deuseztatu dela ulertuko da.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

6. Udala hitzarmen honi atxikitzeari buruzko puntua sartuko da Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrerako aztergai-zerrendan.

### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, EUDEL eta NATURCORP REDES S.A.U.ren artean sinatutako hitzarmenari **atxikitzea** erabaki du, tokiko herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo bakarreko erabilera egiteagatiko tasa udalek kudeatzeko. Berau, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean azaldutakoari jarraituz egingo da.

**8.- SAN BARTOLOMEKO KULTUR ARETOAREN ERAIKINA DESAFEKTATZEA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko ekainaren 28an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 457/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enplegu Informazio Batzordeak 2005eko ekainaren 21ean hartu zuen 109 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enplegu Informazio Batzordeak** egoki iritzi dio San Bartolomeko Kultur Aretoa hartzen duen eraikinaren eskola-erabilera desafektatzeko espedientea hasteari; izan ere, irakaskuntza-jarduera beste eraikin batean burutzen da orain. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimena eskatu behar da, behin betiko desafektatu aurretik.

### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, San Bartolomeko Kultur Aretoa hartzen duen eraikinaren eskola-erabilera desafektatzeko espedientea hastea erabaki du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enplegu Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **9.- EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU ETA NORMALIZATZEKO UDAL ARAUDIA**

**ONESTEIA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 19an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 493/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enplegu Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 12an hartu zuen 114 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Euskararen Erakundea izeneko Erakunde Autonomoko Zuzendaritza Kontseiluak, iragan ekainaren 22an egindako batzarrean, euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko udal araudia onetsi zuen.

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enplegu Informazio Batzordeak** aldeko irizpena eman dio aurkeztutako araudiari. Horrela bada, Udalaren osoko bilkurak, egingo duen hurrengo batzarrean aztertu beharko du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan adierazitakoaren arabera.

### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Gure taldeak baieztatu emango dio Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Araudi honi.

Alde batetik, araudi honetan bai udalerrian eta bai udaletxean euskara sustatzeko neurri eraginkorrak eskatzen dira.

Bestetik, araudi honetan ez da gaztelania baztertzeko –aurreko araudian gertatzen zen moduan-, eta horregatik gure ustez, oso tresna baliagarria izango da benetako gizarte elebidun bat lortzeko.

Beraz, eta lehen esan moduan, geure aldeko botoa emango diogu udal araudi honi.

Hemendik aurrera –eta araudi guztiekin gertatzen den moduan-, udalaren erronka araudi honen neurriak martxan jartzea izango da.

**EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak** honakoa adierazi du:

Besterik gabe eskertzea alderdi guztiei prozesu honetan eduki dituzten parte hartzea eta euren jarrera positiboa; badakit araudi hau berandu heldu dela eta duela bi urte edo egon behar zuela onarturik. Hala ere, arrazoi ezberdinetatik eskatu dugu atzeratzeko epea eta abar, eta “kiroltasun” handiz beste talde guztiek itxaron egin gaituzte eta azkenean horra hor araudia.

Xabierrek esan duen bezala eta berarekin ere bat nator, hemendik aurrera araudia izan daiteke edo ur errea, edo erabili gabe gelditzen den dokumentu bat bezala geldi daiteke, edo bestela horretatik sortu ahal ditugu Leioa gizarte elebidunago bat bilaka dadin behar diren baldintzak .

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, ondokoa erabaki du:

1.- Hasieran onetsiko da euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko udal araudia; Euskararen Erakundea izeneko Erakunde Autonomoko Zuzendaritza Kontseiluak 2005eko ekainaren 22ko batzarrean onetsi zuen eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enpleguko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio.

2.- Onespen hau jendaurrean azalduko da 30 eguneko epean, iragarkia argitaratuz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki-oholean.

3.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, araudi hau behin betiko onetsi dela ulertuko da.

**10.- BAKE EPAILEA IZENDATZEKO PROPOSAMENA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 19an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 485/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 12an hartu zuen 77 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzorde honek, iragan ekainaren 21ean, 71/05 irizpena onetsi zuen; hona hemen, hitzez hitz:

“LEIOAKO BAKE EPAILEAREN LANPOSTURAKO ESKABIDEAK: *Duela gutxi deialdia egin da Leioako Bake Epailearen lanpostua betetzeko.*

*Horretarako emandako epean, eskabide bi jaso dira, curriculumak erantsita dituztela. Hona hemen eskabideak aurkeztu dituztenak:*

*\* Manuel López Gaño jauna (sarrera-erregistroko zk.: 3809/05).*

*\* Eva Recio González andrea (sarrera-erregistroko zk.: 3896/05).*

*Legez ezarritako prozeduraren arabera, udalaren osoko bilkurari dagokio izendapen proposamena egitea, Batzorde honen irizpenaren ondoren.*

*EAJ-PNV, EA eta PSE-EE-PSOeko ordezkariak, hautagaien curriculumak aztertuta, hautagai egokiena Manuel López Gaño dela uste dute, batez ere bere ibilbidea eta esperientzia kontuan hartuta. Aldiz, PP eta EB-BERDEAK taldeetako ordezkariak denbora luzeagoa eskatu dute gaia aztertzeko.*

***Barne Araubideko Informazio Batzordeak** egoki iritzi dio gaia mahai gainean uzteari, PP eta EB-BERDEAK udal taldeetako ordezkariak hobeto azter dezaten.”*

PP eta EB-BERDEAK taldeetako ordezkariak azaldu dute ez zaiela espedienteen kopiarik bidali eta ezin izan dituztela hautagai bakoitzaren merezimenduak aztertu.

Gaia bozkatu eta honakoa izan da emaitza: EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jaunak, Javier Bidea Molinillo jaunak, Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak eta Bea Resa Bardeci andreak, PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak eta Nieves Hurtado Urtiaga andreak eta EAko Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak aldeko botoa eman dute; PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna eta Aiala Eguiluz Rodríguez andrea eta EB-BERDEAK taldeko Rubén Belandía Fradejas jauna, aldiz abstenitu egin dira, ezin izan zituztelako aztertu Bake Epailearen lanposturako hautagaien curriculumak. Ondorioz, **Barne Araubideko**



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

**Informazio Batzordeak** aldeko irizpena eman dio Manuel López Gaño jauna epaile titular eta Eva Recio González andrea ordezeko epaile izendatzeari. Izan ere, Bake Epaile gisa duen ibilbidea, herritarrek dioten begirunea eta bitartekaritzarako duen gaitasuna kontuan hartuta, epaile titularren lanpostua burutzeko pertsona egokiena Manuel López Gaño jauna dela uste da.

### **EBAZPENA**

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK** eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Ezartzen diren izendapenen proposamenari dagokionez, hautagaien curriculumak ikusteko aukeraz gain, aurreko elkarrizketa egiteko aukera ere izatea gustatuko zitzaiekeela adierazi du, Udalak burutzen dituen kontratazio guztietan gertatu bezala, nahiz eta kasu honetan Udalaren kontratazioa ez den. Hala ere, Udalak aurkeztu dituen izendapen proposamenak. Kasu honetan, bake epailea izateko proposatu den pertsonak esperientzia eta aintzatespena dituela adierazi du; hala ere, hamabost urte eman ditu lan horretan, eta beharbada ona izango litzateke aldatzea. Bestalde, bake epailaren ordezeko proposatzen den pertsonak lanposturako prestakuntza egokia duela esan du, eta uste du esperientzia nahikoa ez izatea ez dela arrazoi bat bake epailaren lana arrakastaz ez gauzatzeko.

Alde horretatik, aurretik elkarrizketa egin izana gustatuko zitzaiekeen. Hori dela eta, posiblea izatekotan udalaren osoko bilkurak izendapena aurkeztu aurretik elkarrizketa egiteko eskatu dute, edo bestela, behin-behineko izendapena aurkezteko, hautagaien balioa hobeto ezagutu arte.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** alkate jaunak honakoa adierazi du:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak egindako proposamena aurretik aurkeztu behar zela adierazi du, eta berak ez zuela izango inolako arazorik hori onartzeko. Hala ere, Batzordean nahiko informazio izapide luzea bete dela kontuan hartuta, une horretan, izendapenak proposatzeko orduan, hain zuzen ere, ez du egokitzat jotzen gehiegi berandutzea. Horri dagokionez, bake epaile titularra izateko berriro proposatzen den gaur egungo bake epailea lanposturako egokia dela adierazi du, esperientzia eta maila pertsonal handiak ditu eta.

**PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak** honakoa adierazi du:

Proposamenaren alde bozkatuko dutela adierazi du, PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak arrazoia badu ere. Izan ere, ziur aski hobea zen hautagaiei elkarrizketa egin izana, horiek ezagutzeko baino ez bazen ere. Dena den, bere talde politikaren ikuspuntutik ez zen irizpidea aldatu behar, bake epaile batek izan behar dituen ezaugarri pertsonalak eta bizitzaren esperientzia hautagaietako batek baino ez baititu betetzen, horrek lanposturako egokia dela zehazten duela; beste pertsona, aldiz, egokiena ez zela erabaki zen Batzordean, bai haren adinagatik eta lan egoeragatik, bai curriculumarekin bete beharagatik.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Egoera aukera ona iruditu zitzaizela adierazi du: horrela, Administrazioetako bateko, eta kasu honetan Justizia Administrazioa, herritarrekiko irudi hurbilena aldatzea lagungarria



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

izan liteke, pentsaera bertan betiko dagoen zerbait ez dela eta berriztagarria dela erakusteko. Izan ere, pertsona arrunta da, ez da funtzionarioa, eta ziur aski, egoera horrek hurbiltasun izaera indartuko luke. Bestalde, hautagaiaren gaztetasuna kaltegarria omen dela egia bada ere, kasu honetan bake epaile emeritua ez izateko formula agertzea oso gomendagarria izango dela adierazi du, aldi luzea eman baitu bertan eta ziur aski, karrera profesionalaren amaieran guztiek izan behar duten erretiroaren atsedena merezi baitu. Horretarako, denbora muga bat jarri beharko litzateke, bai adinagatik, bai agintaldi kopuruagatik. Hori dela eta, alde horretatik formula bat agertzea gustatuko zitzaiekeen; formula horrek egokia izan arren, edo epea kontuan hartuta egindako proposamenaren aurka jardun ezin izatekotan, udalaren osoko bilkura honetan gaur egungo pertsonak berriztapen gehiagorik jasoko ez lukeela berraztertzea beharko luke nolabait. Izan ere, uste dute berriztatzeko formula ona dela, ona baita esperientziarik eza: horrela, sasijakinkeriak edo nagikeria saihestuko dira. Horregatik, udalaren osoko bilkuraren bilerara etorri nahi zuten, horixe berriztatzeko den azken aldia dela dioen konpromisoa hartuta.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Bere taldea abstenitu egingo da, elkarrizketa edo irizpide handiagoa duen elementua izan nahi zuten eta. Era berean, posiblea izatekotan, bake epaile titularren zein ordezkari bake epailearen izendapena behingoz eraginkorra izateko eta Barne Araubideko Batzordera bertaratzeko eskatu du, talde ezberdinek horiek ezagutu eta haien lana baloratzeko aukera izan dezaten.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Horri buruzko arazorik ez dagoela adierazi du. Beraz, Batzordeko idazkariari eskatuko zaio birekin harremanetan jartzeko eta irailean Batzordera bertaratzeko.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamabost boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak eta EAko ordezkariarena; sei abstentzio ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi ordezkariak eta PPko lau zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz**, honakoa **erabaki du**:

1.- Manuel López Gaño jauna eta Eva Recio González andrea proposatuko dira Organo Judizialak Bake Epaila titular eta ordezkari izateko izendatu beharreko pertsona.

2.- Erabaki hau Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidenteari bidaliko zaio, proposatutako pertsonak izenda ditzan. Horretarako, era berean, hautagaiek aurkeztutako agiriak ere bidaliko zaizkio.

### **11.- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN TXOSTENA. SOINU-ATADIA FUNDAZIOAREN LANPOSTUEN ZERRENDARI BURUZKOA:**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 19an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 484/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 12an hartu zuen 76 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

2004ko urriaren 25ean, Soinu Atadia Fundazioko Zuzendaritza Kontseiluak Lanpostuen Zerrenda berria onetsi zuen.

Ondoren, 2004ko abenduaren 23an, udalaren osoko bilkurak onetsi zuen, baina ez zitzaion Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidali, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 19. artikulua agindu bezala.

Tramite hori betetakoan, aipatutako organoak hizkuntza-eskakizunei eta euren derrigortasun-datei buruzko txostena bidali zuen. Bertan, besteak beste adierazi zuen proposamena ez dela aurretiaz aipatutako Dekretuak ezartzen dituen irizpideetatik aldentzen; beste alde batetik, derrigortasunek gainditu egiten dute indizeak zorrotz aplikatuz gero lortuko lirakeenak.

Gainera, ikusi ahal izan da txostena egin duen organoak zuzendariaren eta Arloko hiru arduradunen lanpostuek Lanpostuen Zerrendako lanpostu kopurua handitzen dutela uste duela eta, egia esan, ez da horrela. Izan ere, lanpostu horiek plantillako irakasleek burutzen dituzte, nahiz eta erantzukizun-plusa eta funtzio osagarriak izan.

Amaitzeko, Soinu Atadia Fundazioko Zuzendaritza Kontseiluak, 2005eko ekainaren 28an izan zuen txosten horren berri eta Lanpostuen Zerrenda onetsi zen bezala mantentzea erabaki zuen.

**Barne Araubideko Informazio Batzordea** bidalitako txostenaren jakinaren gainean geratu da. Horrela bada, Soinu Atadia Fundazioaren Lanpostuen Zerrenda udalaren osoko bilkurak 2004ko abenduaren 23an onetsi zuen termino berberetan mantentzea erabaki du.

## **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

## **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, aho batez, Barne Araubideko Informazio Batzordearen txostena berrestea erabaki du eta, ondorioz, Soinu Atadia Fundazioaren Lanpostuen Zerrenda udalaren osoko bilkurak 2004ko abenduaren 23an onetsi zuen termino berberetan mantentzea.

**12.- UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEKO PROPOSAMENA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 19an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 486/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 12an hartu zuen 78 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

Batzordeari jakinarazi zaio, iragan uztailearen 5ean, Alkatetzak eta Eneko Arruebarrena Elizondo eta Javier Bidea Molinillo alkateordeek, Batzorde honetako idazkariarekin batera, batzarra izan zutela udal honetako ELA eta LAB sindikatueta langileen ordezkariekin. Batzar horren deialdia langileen ordezkari Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proposamena helaraztea zen. Hona hemen aldaketa, eskema gisa:

- **LOREZAINZA**

Gaur egungo Lanpostuen Zerrendak honako lanpostuak aurreikusten ditu:

- Lorezaintza taldeko buru 1.
- Lorezain ofizial 1.
- 6 lorezain peoi espezialista.

Alkatetzaren proposamenarekin, honakoa lortu nahi da:

- Lorezaintzako langile eta zerbitzuen ikuskatzaile 1.
- Lorezaintza taldeko buru 1.
- 6 lorezain ofizial.

- **PINTURA**

Honakoa da gaur egungo Lanpostuen Zerrendaren konfigurazioa:

- Pintore ofizial 1.
- 2 pintore peoi espezialista.

Alkatetzaren proposamenarekin, honako konfigurazioa lortu nahi da:

- Pintura taldeko buru 1.
- Pintore ofizial 2.

- **KULTURA**

- Liburutegiko laguntzaile 1.

- **HIRIGINTZA**

- Hirigintzako ANT 1.

Batzarrean aztertutakoa biltzen duen agirian, aldaketa honen arrazoiak azaltzen dira. Bestalde, ELA sindikatuaren adostasuna du eta LAB sindikatuak ez du inolako eragozpenik azaldu, lanpostuak gehitu eta sortzen direlako.

EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunak, ordezkari sindikalarekiko bilerara joan den zinegotzia den aldetik, Batzordeari azaldu dizkio proposamenaren xehetasunak. Lorezaintza eta Pintura Atalei dagokienez, sortu beharreko lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak ofizial eta peoien lanpostuek gaur egun dituztenak izan beharko liritekeela gehitu du. Lorezaintzako langile eta zerbitzuen ikuskatzaile, Hirigintza Diziplinako Administrazio Nagusiko teknikari eta Liburutegiko laguntzailearen lanpostuei dagokienez, lanpostuen alde ezberdinak aktari erantsitako eranskinean zehaztutakoak izango dira.

EB-BERDEAK taldeko Rubén Belandia Fradejas jaunak adierazi du proposamenarekin ados dagoela, baina badaki Udaleko administrari laguntzaileek idazkia bidali dutela, antzeko jardura bat buru dadin administrarien lanpostuetan sartzea barne sustapenaren bidez errazteko asmoz.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunak aipatu du administrari laguntzaileen asmoa zentzuzkoa izan daitekeela eta ezin izan dela aztertu, goizean izan dute horren berri eta.

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** honako irizpena eman du:

1.- Onetsi egingo da Udaleko Lanpostuen Zerrenda, aktaren eranskinean azaldu diren terminoetan. Berau, hala ere, udalaren osoko bilkurak aztertzeko ipiniko da egingo duen hurrengo batzarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i) artikuluan arabera. Ondoren, aldaketa eta dagozkion agiriak bidaliko zaizkio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.5 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 19. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2.- Aztertu egingo da administrari laguntzaileek aurkeztutako idazkia (sarrera-erregistroko zk.: 4668/05), ondoren horren gaineko irizpena emateko.

## **EBAZPENA**

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK** eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

**PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak** honakoa adierazi du:

Proposamenaren alde bozkatuko dutela adierazi du, Barne Araubideko Batzordean egin zuten bezala. Horri dagokionez, alde horretatik gaur bozkatzeko jarri den berrikuspena bezalakoa eskatu duten beste funtzionario batzuk daudela adierazi du. Horregatik, aipatutako erreklamazioa aztertzeko, horretaz ez ahazteko eta haien eskaerak kontuan hartzeko eskatu du.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak** honakoa adierazi du:

Barkatuko didazue, baina nahiz eta ni Barne Araubideko Batzordeko kide izan, normalean ez naiz joaten eta neure ordezkari gure taldeko beste kide bat joaten da. Bileretan gertatzen denaren berri jasotzen dut akten bidez, eta argi dago hitz egiten dena aktan idazten dena baino gehiago dela. Hori dela eta, uste dut merezi duela akordio horren inguruan egon diren bi edo hiru gauza azaltzea.

Aurreko LPZ onestean, lorezaintzaren inguruan akordioa lortu zen bai zortzi pertsonak osatutako lantaldearekin, bai ordezkari sindikalekin. Horren arabera, hamar pertsonak osatutako lorezaintzako lantaldea lortu behar zen: burua, hiru ofizial eta sei lorezain. Helburu hori lortzeko, aurretik lana kentzen zuen LPZ bat onartu behar izan zen, benetan ofizialak ziren arren beste egiteko batzuk zituzten langileak erregularizatu ahal izateko; gero, berriro aldatu behar zen LPZ, formula honetara heldu ahal izateko. LPZ hau onartzearekin batera orain dela bi urte inguru egindakoa osatzen da nolabait, baina bitarte horretan elkarrizketak egon dira bai lorezaintzako lantaldearekin, bai ordezkari sindikalekin. Gauzak horrela, konfigurazio berria Lorezaintzako langileen ikuskatzailearekin, Lorezaintza taldeko buruarekin eta sei lorezain ofizialekin osatzen da. Hori gertatu da, lorezaintzako langile taldea txikia izanda, INEM-Toki Erakundeak programa bezalakoen bidez langileak kontratatzen zirelako lorezaintzako zeregin zehatzak burutzeko; lorezainek, berriz, ofizialaren zereginak burutzen zituzten, kontratatutako lanak kontrolatuz eta ebaluatuz. Hori dela eta, lorezainekin zein batzordearekin lortutako



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

akordioaren arabera, formula berriaren bidez INEM-Toki Erakundeak programa erabiltzen jarraituko da, beharrezkoa denean. Zehaztu egin behar da udal zerbitzuak zein lorezaintza lan burutuko duen, beharrezkoak diren zerbitzuak zeharka kudeatuko dituela.

Amaitzeko, LPZ aldatzeko proposamen horrek Pintura zerbitzurako konfigurazio ezberdina (pintura taldeko burua eta bi ofizial) daukala adierazi du. Era berean, Kultura Arloan Liburutegiko laguntzailearen eta Hirigintza Arloan Hirigintzako ANTren lanpostuak sortzea dakar.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** alkate jaunak honakoa adierazi du:

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak administrari laguntzaileek aurkeztutako idazkiaren gainean egin duen planteamenduari dagokionez, aipatutako kontua irailean aztertuko dela adierazi du.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Proposatutako aldaketaren alde egingo dutela adierazi du, Eneko Arruebarrena Elizondo EAJ-PNVko bozeramaileak esan duen bezala, lorezaintzan eta pinturan berrantolaketa arrazoizkoa da eta; liburutegiko laguntzaileari dagokionez, arloko teknikariek luzaroan eskatu duten kontua da. Halaber, hirigintzako teknikariaren lanpostua sortu behar da, gaur egungo teknikariak tinko azaldu baitu Hirigintza arloan beste teknikari bat egon behar dela. PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak balizko hobekuntza batzuk mahaigaineratu dituzten administrari laguntzaileen taldearen kontuaren inguruan egin duen planteamenduari dagokionez, hori kontuan hartzeko eskatu du.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Berriro esan du administrari laguntzaileek egindako planteamenduak irailean aztertuko direla.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

## **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Barne Araubideko Informazio Batzordearen irizpena berrestea erabaki du eta, ondorioz, Udaleko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onetsiko da, aktaren eranskinean azaldu diren terminoetan. Aldaketa eta dagozkion agiriak, halaber, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidaliko zaizkio.

**13.- SAHARARI BURUZKO DEKLARAZIOA:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko ekainaren 28an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 444/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko ekainaren 21ean hartu zuen 68 zenbakidun irizpena Saharari buruzko deklarazioaren gainekoa da. Testu hori Saharako taldeen koordinatzaileak bidali zion Alkatezari (sarrera-erregistroko zk.: 4273/05), eta talde politiko ezberdinek adostuta dago.

Honakoa dio:



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

*"Mendebaldeko Saharan okupatutako lurraldeetan azken egunetan egon diren gertaera larrien aurrean –Saharako herritarren manifestaldi baketsuak bortitz zigortuz eta aipatutako herriaren giza eskubideak gero eta neurri handiagoan urratuz-, eta aipatutako urratzeen eta hainbat ordezkariak El Aaiunera heldu ezin izanaren arduraduna den Marokoko Gobernuaren jarrera ikusita, ondokoa adierazi nahi dugu:*

1.- Erabat gaitzesten dugu Marokoko armadak zein poliziak Saharako herritarren manifestaldi baketsuak bortitz zigortzea eta giza eskubideak gero eta neurri handiagoan urratzea.

2.- Saharako biztanleen eta Mendebaldeko Saharako gainerako biztanleen eskubideak zorrotz errespetatzea nahi dugu, eta Marokoko Gobernuari eskatzen diogu horiek bermatzeko.

3.- Aipatutako Gobernuak Espainiako Erakunde Solidarioetako ordezkariak ezberdinek Mendebaldeko Sahara bisitatzeari egindako ukoa ikusita, gure harridura eta gure gaitzespena adierazi nahi ditugu.

4.- Espainiako Gobernuari eskatzen diogu Marokoko Gobernuak bultzatu eta hari eskatzeko Mendebaldeko Saharan bizi diren Saharako pertsonen eskubideak babes ditzan eta nazioarte mailan buruzagitza onar dezan, Afrika deskolonizatzeko azken prozesua behar bezala konpontzeko.

5.- Saharako herriak autodeterminatu, nazioarteko legeak eta Nazio Batuen erabakiak bete, Baker Planean ezarritako erreferenduma egin, eta errefuxiatuen Tindoufeko kanpamentuetara bidali beharreko laguntza humanitaria nahikoa izateko duen eskubidearen alde azken urteetan egin diren Deklarazio ezberdinak errepikatzen ditugu. Alde horretatik, bai Azken Erabakia, bai Mendebaldeko Sahara deskolonizatzeko parlamentu arteko ituna, biak onartzen ditugu, Balearretako Parlamentuan martxoaren 11n eta 12an egindako parlamentu taldeen "BAKEA ETA ASKATASUNA SAHARAN" IX. hitzaldian onartutakoak.

6.- Eta azkenik, erakundeek, Kongresua eta Senatua barne, eta Estatuko herrietako biztanle zibilek okupatutako lurraldeetan egin nahi dituzten behaketa saioak positibotzat jotzen ditugu.

Aipatutako Deklarazioa EUDELI, "Bakea eta Askatasuna Saharan" euskal parlamentu taldeari, Fronte Polisarioaren Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariari, Saharako Herriaren Erakunde Solidarioen Estatuko Federazioari (FEDISSAH), Espainiako Gobernuko presidenteari, Espainiako Atzerri-arazoetako ministroari eta Marokoko Erresumako enbaxadari bidaliko zaie.

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** aldeko irizpena eman dio hitzez hitz azaldu den deklarazioari. Horrela bada, PSE-EE-PSOE eta EB-BERDEAK taldeetako ordezkariak ere bat egin dute, eta PPko ordezkariak ez dute iritzirik azaldu, edukia zehatzago aztertu nahi baitute.

## **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Saharako taldeen koordinatzaileak bidali duen Saharari buruzko deklarazioa onestea erabaki du.

### **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**14.- TOKIKO GOBERNU BATZARREAN 2005EKO UZTAILAREN 26AN HARTUTAKO ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUA BERRESTEA, LAMIAKO-TXOPOETAKO BBBPBren DESJABETZEKO ESPEDIENTEAK ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA JENDAURREAN AGERTZEKO EPEAN AURKEZTU DIREN ALEGAZIOEI BURUZKOA. ESPEDIENTEA EUSKO JAURLARITZARI BIDALTZEA. PREMIAZ OKUPATZEKO DELA ADIERAZTEKO ESKATUZ:** Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko uztailaren 26an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 500/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko uztailaren 20an hartu zuen 112 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek honako aurrekari hauen berri eman dute:

**2005-04-28:** Osoko bilkuraren 4. erabakiaren bitartez, Lamiako-Txopoetako BBBPBn hutsik dagoen gunearen hirigintza kudeaketak eragindako ondasun eta eskubideak desjabetzeko espedientea hasi zen. Era berean, adierazitako erabakiaren 3. atalak honakoa dio:

“Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak Lamiako-Txopoetako Barne Berrikuntzarako Plan Bereziak eragindako ondasun eta eskubideak premiaz okupatzekoak direla adierazteko eskatuko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluari, nahitaez desjabetzeko.”

**2005-05-18:** Horri buruzko iragarkia argitaratu zen egunkarietan, eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda barne.

**2005-05-27:** Iragarkia BAOn agertu zen argitaratuta.

**2005-05-28:** Era berean, Leioako udalaren iragarki-oholean argitaratu zen.

**2005-06-22:** Alegazioak aurkezteko epea amaitu zen. Horretarako adierazitako epean, alegazioak dituzten 41 idazki aurkeztu ziren.

**2005-07-15:** Bizkai Eder 2000 S.L. enpresak alegazio guzti-guztien edukari buruzko txostena aurkeztu zuen (sarrera-erregistroko zk.: 4.778).

**2005-07-19:** Udalaren Bulego Teknikoak txostena egin zuen eta, era berean, Bizkai Eder 2000 S.L. enpresak egindako txosten guztien edukia berretsi zuen bertan.

Halaber, Udalaren Bulego Teknikoak alegazioen edukien berri eman die bertaratu diren zinegotziei. Alegazio gehienak datuak aldatzeko eskaerak dira (azalerak, titulartasunak, etab.), eta ondoren egingo den prozedura-tramite batean ebatziko dira. (Okupatu aurreko aktak gauzatzea).



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

**Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Espedientearen edukiaren jakinaren gainean eta horrekin ados geratuko dira, batez ere alegazioen gaineko txostenari dagokionez.
- Alkatetza-udalburutzak alegazioen gaineko txostenen edukia berretsiko du.
- Alegazio-egileei euren eskaeren berri emango zaie, berretsitakoan.
- Beharrezko espedientea bidaliko zaio Eusko Jurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak ondasun eta eskubideen okupazioa premiazkoa dela adieraz dezan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan adierazitakoaren arabera.

### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK onespenerari buruzko **dekretua egin du**. Bada, erabaki hau osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean berretsi beharko da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, 2005eko uztailaren 26ko Tokiko Gobernu Batzarrean hartu zen Alkatetza-Udalburutzaren Dekretua berrestea erabaki du eta, ondorioz, Lamiako-Txopoetako BBBPB desjabetzeko espedienteak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean azaldu bitartean aurkeztutako alegazioei buruzko txostena berrestea. Espedientea Eusko Jurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari bidaliko zaio, ondasun eta eskubideen okupazioa premiazkoa dela adieraz dadin, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan adierazitakoaren arabera.

**14.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2005-06-17tik 2005-07-22ra.** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedienteen agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatuzko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren aktak kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

### **15.- PRESAZKO MOZIOAK**

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

## **16.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Honako eskari eta galdera hauek egin dira:

1.- **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** alkate jaunak honakoa adierazi du:

A) Eskaria: Rubén Belandia EB-Berdeak taldeko zinegotzi jaunak uztailaren 14an Sondikako lan istripu batean hil zen Leioako Iñaki Jauregi Tejidoren omenez isilpean minutu bat emateko adierazi donez, bertaratutakoak zutitu eta minutu bat isilpean emateko eskatu du. Denek egin dute eskatutakoa.

2.- **PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz** jaunak honakoa adierazi du:

B) Eskaria: Komunikabideei esker, bere talde politikoko zinegotziek jakin dute ekainaren 26an, igandean, Lamiakoko futbol-zelai berrituak inauguratu zirela. Ekitaldi horretara alkate jauna eta BBKren zuzendariorde nagusia joan ziren. Era berean, komunikabideen bidez jakin dute Lamiako-Txopoetako BBBPBk eragindako lehenengo eraispinak uztailaren 12an hasi direla. Ekitaldi hori oso garrantzitsua eta sinbolikoa zen, Leioako auzo horiek leheneratu eta birmoldatzeko lanak lurren gainean hastea markatzen zuen eta. Horri dagokionez, komunikabideen bidez udalerraren garapenerako garrantzitsuak diren ekitaldi horien berri izatea Gobernu Taldearen eta Alkatetzaren oposizioko talde horrekiko begirune eta informazioko hutsegite larria dela iruditzen zaie. Adierazitako hutsegitea ez da berria; izan ere, beste batzuetan udalaren osoko bilkuraren bileretan salatu dute oposizioko talde horri informaziorik eskaini ez zaiola. Hori dela eta, ez dute eskatuko eta ez dute espero ez barkamenik, ez jarduera horiei buruzko azalpenik. Hori agertu besterik ez dute nahi, eta horri dagokionez, adierazi du beti salatuko dutela Gobernu Taldeak udal talde horrekin izandako edozein jarduera bidegabe.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Lehenengo puntuari dagokionez, BBK-k Lamiakoko futbol-zelaiaren inauguraziora gonbidatu zuela adierazi du. Izan ere, zelai horiek BBKren lurren gainean egin dira, bere baliabideen bidez berritu direla, eta bera gonbidatu joan zen.

Bigarren puntuari dagokionez, Txopoetako etxebizitzaren eraispin ekitaldi sinbolikoa dela-eta, ospakizuna izan ez dela adierazi du. Enpresak jakinarazi zion eraikina eraitsiko zuela, eta bera hara joan zen; ez, ostera, Hirigintzako zinegotzi eskuordetua eta udal teknikariak, ekitaldi sinbolikoa zelako. Horregatik, uste du jarduera horiek ez direla barkamena eskatzeko modukoak; dena den, oker egon den guztietan, berak barkamena eskatu du.

3.- **PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero** jaunak honakoa adierazi du:

C) Eskaria: Aurreko egunean postaz EUDELen liburuxka bat jaso duela adierazi du. Bertan zinegotzi edo alkatearen lana burutzeko Toki Politika eta Kudeaketari buruzko modulu eta mintegi espezifikoko batzuk proposatu dira, bere ustez oso interesgarriak direnak. Hori dela eta, talde politikoetako zinegotziak ikastaro horietara joan ahal izateko partida bat jartzea proposatu du.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Talde politikoetako zinegotziek egokitzat jotzen dituzten modulu eta mintegietan izena eman eta joatearekin ados dagoela adierazi du. Ikastaro horiek urrian, azaroan eta



**LEIOA** AYUNTAMIENTO  
**ELIZATEKO** DE LA ANTEIGLESIA  
**UDALA** DE LEIOA

**BIZKAIA**

abenduan garatuko dira, eta oso interesgarriak izango dira. Horregatik, interesatuta daudenek izena eman dezakete Udalaren bidez, aurrekontuaren aldetik horretarako inolako arazorik egongo ez dela.

**4.- PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak** honakoa adierazi du:

D) Galdera: Sustapen publikoetako baten bateko etxebizitzaren zozketaren bidezko esleipenari dagokionez, erreserbako zerrendan agertzen direnei esleitzeko zein irizpideri jarraitzen zaion jakin nahi du, zerrendan lehentasuna duen pertsona bati bi logelako etxebizitza eta zerrenda horretan beherago agertzen den beste bati hiru logelakoa eskaini zitzaizkiela adierazi diote eta, hasieran, behintzat, pertsona guztiek betekizunak bete eta parametro berdinak zituztela.

**EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Udalak Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin hitzarmen bat sinatu zuela adierazi du. Hitzarmen horren bidez, aipatutako Sailak zozketen lana eta etxebizitzaren esleipena hartzen zituen bere gain, hitzarmenean ezarritako arauen arabera eta Agindu eta Dekretu aplikagarriei jarraiki.

Horri dagokionez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari gutuna bidali diola adierazi du; bertan egin duten etxebizitzaren lehenengo zozketaren berri izan dutela esan zaio, eta etxebizitzak esleitzeko orduan jarraitu diren urrats guztiak zehatz-mehatz deskribatzeko eskatu zaio. Horren ondorioz, informazio hori jasotzen duenean, jakinarazi egingo duela adierazi du, denek jakin dezaten eta gaiaren jarraipena egin dadin.

Jarraian, udalaren osoko bilkuraren aurreko bileran Dominikar Errepublikaren inguruan egin zen gomendioari jarraiki, Espainiaren Santo Domingoko Enbaxadara idazkia bidali duela jakinarazi du. Horren bidez, laguntza eskatu die, Santo Domingo Oesteko Udalaren ordezkariari beharrezko bisak emateko, hurrengo urtean Leioa ezagutu ahal izan dezaten. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren eta Atzerri Arazoetako Ministerioaren bidez denbora luzeagoan lan egiteko aukera egongo dela adierazi du, dena ondo atera dadin.

Ondoren, zinegotzi guztien izenean Casa Abiertako jendeari mezu elektronikoa bidali diola adierazi du, beren artean egon ez izana pena ematen diola eta San Juan jaietan, Lamiakoko ikastetxean ospatutako jaietan, beraietaz gogoratu zirela jakinarazita. Jai hori oso hunkigarria izan zen eta sekulako arrakasta izan zuen, tonbolak oso ondo funtzionatu zuen... Aldi berean, berriro gonbidatu ditu hurrengo urtean Leioara etor daitezen, horretarako Udal honek bidezko bisak lortzeko behar diren kudeaketa guztiak burutuko dituela.

Eta gaueko bederatzia direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE  
ALKATEA,

IDAZKARIA,